



ALKATETZAREN TXOSTENA. 2017KO AURREKONTUA.

Txosten honetan islatzen da 2017rako Aurrekontuaren Proiektuaren aurkezpena; aurrekontu orekatua diru-sarreretan eta gastuetan, ezin zitekeen eta, bestela izan.

Egia da Aurrekontua onartzeko aurreikuspena urtea aurrera doala iristen dela. Egia da baita Gobernu Taldearena dela 2016ko abenduaren 31a baino lehen ez aurkeztu izanaren erantzukizuna. Kapituluetan egon diren hainbat ziurgabetasunek eragin dute atzerapen hau, batez ere diru-sarrerei dagokienean. Baina hori bezain egia ere bada oposizioan dauden alderdien estrategiak, hau da, neurrigabeko zuzenketak aurkezteak —aurtengo zuzenketek dirutan duten balioa, iazko proposamenarena baino ia bost aldiz handiagoa izan da— biderkatu egin duela baita teknikarien eta politikarien lana, eta, hortaz, atzerapen horren parte bat horregatik izan dela.

Gure asmoa da datorren ekitaldirako epeak murriztea, dokumentua nahi izango genukeen baino ziurgabetasun gehiagorekin landu beharko dugun arren.

Aurrekontu-proiektuan, 31.739.021 euroko proposamena aurkeztu genuen. Iazko ekitaldian aurkeztutakoarekin alderatzen badugu, 1,5 milioi pasatxo baino gutxiago, hau da, % 5aren inguruko jaitsiera.

Egoerak paradoxa bat dela ematen du, izan ere, adierazle makroekonomikoek — ekonomia-sistemaren portaerari dagokionean, eta, horren ondorioz, Administrazioen diru-bilketan— hazkunde leunak iragartzen baitituzte, eta, zentzu horretan, ematen du egoerak zertxobait hobera egiten duela, Udalaren aurrekontu ahalmenean islatu beharko litzatekeen hobekuntza.

Eta hori horrela da. Aurreko ekitaldietan, eta 2016koan sartuko gara, Eusko Jaurlaritzaren egonkortasun akordioaren ondorioz, EAJ-PNVk PSE-EEri onartutako zuzenketak lagun, hirian inbertsioak egiteko 2,5 milioi eurotako aportazio ezhoiko bat lortu zen. Aldiz, joan zen urteko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeek eta Gobernuaren osatzeko EAJ-PNVren eta PSE-EEren arteko akordioak, ez ohiko diru-sarrera horien



desagertzea ekarri dute eta, horregatik, automatikoki, diru-sarreraren aurreikuspenetan 2,5 milioiko jaitsiera dator.

Horregatik, 2016 eta 2017 ekitaldien arteko konparaketan esandako 2,5 milioi horiek alde batera uzten baditugu, 2017ko aurrekontua 2016koa baino ia milioi bat euro gehiagokoa izango litzateke, hau da, % 3 gehiagokoa.

Hori horrela izanik, Aurrekontuak modu zentzudunean eta errealistan jasotzen du maila orokorrean ematen ari den egoera ekonomikoaren hoberako joera hori, baina Eusko Jaurlaritzaren ezohiko ekarpen hori desagertzeak gure maniobra-marjina eta inbertsioak egiteko ahalmena zuhertasunez kudeatu beharra dakar, ahalmen hori modu nabarmenean jaitsi da-eta.

Errepikakorra dela ematen badu ere, derrigorrezkoa da Aurrekontuak egiteko orduan dauden oinarrietan eragitea, oinarri horiek modu ezin argiagoan islatzen dutelako hartutako konpromisoei, Eibarko gizartearen parte-hartzeari eta Udaleko alderdi politikoek egindako ekarpenei diegun errespetua.

- Agintaldiko bigarren urtera iritsi gara eta, hori dela eta, gure proposamenen parte bat 2015eko maiatzaren 24an Eibarko herriari aurkeztu genizkion konpromisoek gidatu behar dute, horiei esker lortu baikenuen gehiengoaren konfiantza eta gure hiriko kudeaketa lidertzen jarraitzeko ardura. Ez dago zalantzarik: nahia edo borondatea beti dago baldintzatuta egoera ekonomikora nahiz Udalean dauden gehiengoaren eta gutxiengoaren arteko jokora, baina hori ezin da aitzakia izan: gauza izan behar gara negoziatzeko dugun ahalmena trebatzen jarraitzeko, bizitzea tokatu zaigun egoerara ekonomikora moldatzeko eta herriarentzat onak diren akordioak lortzeko, betiere.
- Udal-zerbitzuek Administrazio honen kalitatearen, profesionaltasunaren eta eraginkortasunaren eredu izan behar dira eta, dudarik gabe, guztia hobetu badaiteke ere, bizi izan dugun eta, oraindik ere, pairatzen darraigun krisia kontra eduki arren, Udal hau gauza izan da ez bakarrik eskaintzen dituen zerbitzu horietako bat bera ere ez murrizteko, baizik eta zerbitzuok hobetzeko bidea bilatu eta zerbitzuok indartzea lortzeko.



- Gardentasunak eta parte-hartzeak aspaldi utzi zioten Gobernu Onari buruzko liburuetan agertzen ziren hitz hutsak izateari gure izaeraren ikur bilakatzeko, gure Udalaren eta gure hiriaren ikur. Aurten, Aurrekontuetan egituraturako parte-hartze eredu bat ezartzeko gauza izango garen ikusi nahi dugu eta, horretarako, hausnarketa hori egiten utziko digun munta handiko partida bat sartu dugu.
-
- Gainontzeko udal-taldeek lanak, aurretik akordioak hartuz, hiriarentzat onuragarriak izango diren ekimenak aplikatzen uzten du, Aurrekontuan zuzenketak sartuz edo, kontuak behin onartuta daudela, eguneroko lanaren bidez.

DIRU-SARREREN EGOERA

ERAGIKETA ARRUNTAK

1. Kapituluak. Zuzeneko zergak.

Urte bitan igoerak egin ondoren, % 3aren ingurukoak, aurten, zuhertasunez jokatu dugu eta diru-bilketaren aurreikuspena ia 2016koaren parean utzi. Beraz, aurtengoan egiten den planteamendu honek, tasak, zergak eta prezio publikoak izoztuta, koherentzia ematen dio proposamen honi.

Ikusiko dugu ekonomiak duen hobetze-joera horrek kontzeptu hauen diru-bilketa ere hobetzen duen, hauek diru-sarreraren aurrekontu orokorrean duten eragina % 25aren ingurukoa delako (8.224.394,98 euro). Hauexek dira hizpide ditugun kontzeptu horiek: OHZ, JEZ, enpresa-jarduketak edo ibilgailuak.

Gainera, aurtengo honetan Gainbalioen Zergaren portaerari zuzenean eragingo diote Europako epaiek, eta adi egongo gara, Kapitulua honetan horrek izan dezakeen eraginagatik.



2. Kapituluua. Zeharkako zergak.

Kapitulu honetan jasotzen den kontzeptu bakarra Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergarena da (EIOZ).

Zalantzarik gabe, Kapitulu honek diru-sarrera gehiago sortzeko duen ahalmena lotura zuzena du Udal honek duen borondate politikoarekin.

Urte asko daramagu zerga hau erregulatzen, eta horixe da, hain zuzen ere, Udal honek politika fiskaletik Eibarko familiei ematen dien laguntzaren adibiderik gardenena.

Diru-laguntzak emanda, obra horietako batzuk egiteko laguntzak ematen ditugu. Urte asko da fatxadak, igogailuak edo pegoretako irisgarritasunak beren aurrekontuaren % 10erainoko diru-laguntzak jasotzen dituztela. Gainera, laguntza hori oraindik handiagoa da erkidegoek edo komunitateek, fatxadak berritzean, eraginkortasun energetiko neurriak hartzen badituzte.

3. Kapituluua. Tasak eta bestelako diru-sarrerak.

Kapitulu honetan ere tasak, zergak eta prezio publikoak izozteko Udal Osoko bilkurak hartu duen erabakiak bere eragina du aurreko urteko aurreikuspenaren errepikapen ia mimetiko horretan. Hala baieztatzen du % 1 eskasera iristen ez den igoerak.

Erabaki hau, aurtengoan ere, beste behin, urtetik urterako nahiz urteko KPIk duen bilakabide ia hondarrekoan sustraitzen da, eta krisi ekonomikoak Eibarko gizartean duen presentzian, egoera lehen baino zertxobait hobea bada ere.

Datuek dioskue KPI igoera esanguratsuak ematen hasi dela; krisi ekonomikoak ez duela azken urteotan kalte egin izan duen bezala kaltetzen. Beraz, aztertu egin beharko litzateke hobekuntza-zantzu horiek 2018ko tasen, zergen eta prezio publikoen proposamenean jasotzeko aukerarik dagoen. Baina, nola ez, Udal Osoko bilkura izango



da hori onartuko duena, eta, hala badagokio, Kapitulua hau zertxobait hobetzen utziko duena.

4. kapitulua. Transferentzia arruntak.

Aurrekontu honen diru-sarrera kontzeptuan I. Kapitulua garrantzia duela ikusi badugu ere, hauxe da urteko aurrekontu bakoitzaren diru-sarrerek duten egoerari buruzko kapitularik adierazgarriena. Aurten, aurreikusitako diru-sarreraren % 60 inguru hartzen du eta, eskatuko den kredituaren aurreikuspena sartuko ez bagenu, portzentaje hori % 65erainokoa izango litzateke.

Kapitulu honetako partida garrantzitsua Udalak finantzatzeko Foru Funtzarena da, Kapitulu osoaren % 90 hortik datorrelako.

Foru Funtzaren mende egote horrek garrantzizkoa egiten du Aurrekontuan islatzeko proposatzen den zenbatekoa errealitatekin ahalik eta gertuenekoa izatea. Gipuzkoako Foru Aldundiak aurreikuspen bat egiten du foru-erakundeak berak diru-sarreraren inguruan dituen espektatibekin arabera eta, horren ondorioz, Udal bakoitzak urtean zehar jarri behar duen zenbatekoa proposatzen du. 2016. urterako islatu zen aurreikuspena ez da bete, beraz, Udalak behartuta dago aurreikuspenaren eta azken emaitzaren arteko alde edo diferentzia hori itzultzera. Beraz, 2016ko likidazioaren ondoren, 300.000 euro inguru itzuli beharrean gaude, uste ez genuena.

2017. urterako, aurreikuspenak % 1,5aren igoera dakar 2016ko datuekin alderatuz gero, eta % 3,3koa urte bereko likidazioarekiko.

Zuzena da aitortzea beste ekitaldi batzuetan Foru Funtza hobeto portatu dela eta udal kutxan uste ez ziren diru-ekarpenak sartu izan direla.

Kapitulu honetan jasotzen dira, beste % 10 horretan, Eusko Jaurlaritzatik nahiz Gipuzkoako Foru Aldunditik jasotzen diren diru-transferentziak, bai programetarako, bai hitzarmen bidezko ekimenetarako, martxan daudenentzako edo martxan ipini nahi direnentzako. Programa bakoitzaren zenbateko espezifikak ez du funtsezko aldaketarik pairatzen, baina bai nolabaiteko gorabeherak, programa bakoitzeko unean-unearan araberakoak.



Aurtengo urtean ere, beste behin, uste dugu beharrezkoa zaigula GLLetara zuzendutako partidaren kudeaketari instant batean erreparatzea, egoera txarrean dauden familien premiak betetzeko oinarrizko erramintetako bat horixe delako.

Denok dakigun moduan toki-administrazioa da laguntza horien kudeaketaz arduratzen dena, eta administrazio autonomikoari dagokio premia horiei aurre egin ahal izateko behar adinako aurrekontu-ekarpena egiteko eskumena.

Zoritxarrez, Kapitulu honetako premiak gehitzen doaz, eta haxe dakusgu: azken urte hauetan, Eusko Jaurlaritzak egin duen ekarpena, onartutako eskari guztiak betetzeko, udal-zuzkidura batekin osatu behar izan dela.

2017rako aurreikuspena, 2016koa baino % 26,5 gehiagokoa da; eta, igoera horrek, zoritxarrez, gehiago hurbiltzen gaitu familia horiek pairatzen ari diren errealitate horretara. Aurreikuspen horiekin eskaria beteko delakoan gaude. Horrela ez bada, Eusko Jaurlaritzari erreklamatu diogu errealitateak galdatzen digun diru-ekarpena egitea; eta, edozein kasutan ere, Udalak, beharrezkoa izango balitz, partida hori osatzeko duen asmoak bere horretan segituko duela bermatuz.

5. kapitulua. Ondare sarrerak.

Portzentualki % 25eko jaitsiera bat aurreikusi arren, termino absolututan horren eragina ez da nabaritzen.

6. Kapituluua. Inbertsio errealak besterentzea eta beste sarrera batzuk.

Aurrekontuak egiteko unean ondarea besterentzako inongo prozedurarik ez aurreikusi arren, udal taldeekin izango elkarrizketetatik era horretako aukeraren bat edo beste zabaldu da; aukera hori aztertu eta, agian, etorkizunean, hezurmamitu daiteke. Bien bitartean, aukera hori ez dagoen bitartean, Kapitulu honek ez du partidarik une honetan.



B. KAPITAL ERAGIKETAK.

7. kapitulua. Kapital transferentziak.

Kapitulu giltzarriaren aurrean gaude, termino globaletan, aurrekontuaren zenbateko osoan zergatik gertatzen den jaitsiera bat eta egoera horrek nola eragiten dion gure gastu-gaitasunari ulertu ahal izateko eta, batik bat, nola eragiten dion inbertitzeko dugun gaitasunari.

Ez dugu larregi luzatzerik atal honetan, Memoria honen sarreran edo atarikoan arrazoia azaldu dugulako. Beraz, larregiko arrazoitzean eroriko ginatekeenez, laburbiltzera mugatuko gara.

Aurreko urteetan EAJ-PNV eta PSE-EE alderdien arteko egonkortasun-akordio bat izatetik alderdi bi horien arteko gobernu-akordio batera igarotzeak eragina izan du udal kutxan, azaldu beharrekoa. Hala da: egonkortasun-akordioaren bitartez, autonomia erkidegoko aurrekontuen negoziazioan PSE-EE alderdiak aurkeztutako zuzenketek, EAJ-PNVrekin adostutakoak, diru-transferentzia handia zekarkioten Udalari, herrian beharrezkoak ziren inbertsioei aurre egiten uzten zizkiguten transferentziak. Azken hiru urteotan ia 8 milioi eurori buruz ari gara berbetan.

Alderdi bien arteko gobernu-akordioa lortzean dagoeneko ez dago negoziatorik eta, horren ondorioz, lehengo diru-ekarpen haiek desagertu egin dira.

Esparru berri horren ondorioz hauxe dugu: 2016an 2.588.000 euro zituela (2,5 milioi euro egonkortasun-itun hartakoak) eta aurten 234.500 euro.

Aurten azpimarratzekoa da Gipuzkoako Foru Aldundiak eman duen 150.000 euroko diru-ekarpena Portalea eraikineko Kultura alorra eraberritzeko.

8. kapitulua. Finantza-aktiboak.

Kapitulu hori konpentsatuta geratzen da langileen soldata-aurrerapenekin. Eragin gutxikoa aurrekontuan.



9. kapitulua. Finantza-pasiboak.

Sarrereren eta gastuen arteko aurrekontu-oreka ezartzen uzten duen erreminta dugu hau. Nola ez, erantzukizunez erabili beharreko erreminta, eta azkeneko urte hauetan horrela egin izanak zorpetze kontrolatua erakusten uzten digu, zor bizia 4 milioi eurotatik behera dela eta, errespetuz, erantzukizunez eta errealismoz baina konfiantzaz, etorkizunari begira antzematen diren erronka batzuei aurre egiten uzten digun finantza-gaitasuna eskuan dugula.

Aurten 2,3 milioi euroko kreditu bat tramitatzea pentsatzen da, ziur aski, behin betiko dokumentuan txertatuko dena. Hala ere, Errebaleko eraikinaren premiak diruzaintzako gerakinean izendatuta daudenez, Finantza eta Ekonomia Plana, onartu beharko duguna aurrekontuen egonkortasun helburua ez betetzeagatik, zehaztasunez eta konpromisoz bete ahal izango da.

Horrela egin genuen 2016an, orduan ere beste Plan Ekonomiko eta Finantzarioa idatzi behar izan genuen, eta Kontu-hartzailetzak emandako 2016 urteko likidazioari dagozkion datuen arabera, bete egin da.

GASTUEN EGOERA

Memoriaren hasieran islatu dugun bezala, Aurrekontuari ezin izan zaio gehitu, PSE-EE—EAJ-PNV alderdiek Eusko Jaurlaritzan hartutako akordioaren ondorioz, azken jardunaldietan izan den bezalako partida bat, azkeneko urtean, inbertsioetarako 2,5 milioi euroko ekarpena izan duena. Horregatik, aurrekontua % 5 inguru jaitsi da, eta jaitsiera horrek eragin berezia izan du 6. kapituluan, % 20 ingurukoa, alegia.

Horixe da aurrean dugun erronka, eta Aurrekontu txikiago batekin hiri egiten segitzea ez da bete beharreko helburu soila, beteko den helburua baizik. Eta ziur gaude, urtean zehar, hainbat aukera izango ditugula —aurrekontu-kudeaketak ematen dizkigun baliabideekin— herritarrentzako eta herriarentzako hobekuntzak egiteko.



A. ERAGIKETA ARRUNTAK.

1. Kapitulu. Pertsonal gastuak.

Kapitulu honek berebiziko garrantzia du Aurrekontu osoan, haren % 34 inguru delako.

Zirriborro hau egiteko orduan ez genituen ezagutzen 2017rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren aurreikuspenak; Udalhitz-en negoziazioan ere ez zen aurrerapenik; beraz, iritzi teknikitik, planteamendua langileen soldatak bere horretan mantentzekoa izan zen. Beraz, ikus daitekeen moduan, Kapitulu hau ia ez da ezertan aldatu 2016koarekiko.

Azken egunotan eman da ezagutzera Estatuaren Aurrekontu Orokorren zirriborroa, non % 1eko igoera islatzen den. Beraz, hori horrela geratuko balitz, hari behin betiko onespina eman bezain laster aurrekontuan txertatuko genuke.

Aldi berean, Udalhitz-en negoziazioan aurrerapenen bat balego eta akordioren bat sortuko balitz, gure konpromisoa akordio hori lan-baldintzetan txertatzekoa izango litzateke; eta aurrekontuan islatu beharra balego, horrela egitea.

Joan zen urtean esan genuen bezala, dagoeneko hasita dago Lanpostuen Zerrenda berraztertze prozesua. Gure konpromisoa berretsi nahi dugu: udal organigrama errealitatera egokitu eta errealitateari lotzea; eraginkortasunaren, errendimenduaren eta aitopenen aldagaiak azterketa horretan barneratu behar direla jakinda, baina baita Kapitulu honetako gastuaren kontrola ere. Gastu iraunkor eta aldizkako Kapitulu honen pisu espezifiko hori heren batetik gora puzteak erakundearen kaudimenari eta maniobrabilitateari eragin diezaieke.



2. kapitulua. Gastu arrunta

Aurreko Finantza eta Ekonomia Planaren gomendioetako batek zioen gastu arrunta kontrolatu beharra zegoela, denok dakigun moduan, Kapitulu honetako partidek betikotu eta datozen jardunaldietan bizirik irauteko arriskua baitute.

Aurten, gomendio hari jarraituta, Kapituluaren gastua aurrekoaren maila berean mantentzen dugu, igoerarik gabe, baina giltzarri diren konpromiso bi hauekin: aurrena, partida bakoitzaren portaera azertu eta egokitzea aurrekontuaren errealitateari; eta, bigarrena, ezin uko eginezkoa, herritarrentzako sentikorrek diren zerbitzuak babestea.

3. kapitulua. Finantza gastuak.

Kapitulu hau udal kontu-hartzailtzak berak kudeatzen du eta zorreatik ordaindu behar diren interesei dagokie. Esan genezake Udal honek duen zorpetze maila ezin hobea dela, eta Kapitulu honek gora egin badu ere aurreko jardunaldiarekin alderatuta, beste kreditu bat kontratatzeko asmoa dagoenez, kreditu horri erraz erantzun dakioke udal talde teknikoek egiten duten lan arduratsuari eta kontrol-lanari esker.

4. kapitulua. Transferentzia arruntak.

Egonkortasun Planaren gomendioek esandakoaren ildotik (2. Kapitulu egin dugun bezala) oraingoan ere transferentzia arruntak gehiago kontrolatzen ahalegindu gara; doiketa % 4 baino zertxobait gehiagokoa izan da. Baina, berriro diogu: Eibarko herritarrekin dugun konpromisoa eta haiekiko laguntza mantentzeko gauza izan behar dugu, kapitulu honek, beste gauza batzuen artean, ondokoak hartzen dituelako bere baitan: ekarpenak; diru-laguntzak; eta jarduerak eta ekitaldiak gara ditzaten herriko beste erakunde batzuei ematen zaizkien diru-ekarpenak (entitateak, taldeak, klubak...).



Kapitulu honen bitartez babesten diren ekintzak, entitateak, elkarteak, ekimenak eta kolektiboak asko dira, zerrenda amaiezina da. Dokumentuan bertan ikus daiteke kapitulu hau noraino heltzen den.

Mankomunitatearekin, Debegesarekin, Kirol Patronatuarekin edo San Andres fundazioarekin ditugun obligazioak betetzetik, herriko igogailuak, gazteen lokalak edo gazteentzako etxebizitza-alokairuak diruz laguntzeraino heltzen da. Gizarte Larrialdietako Laguntzak, gizarte-interbentziokoak edo GKE erakundeen laguntzak tramitatzetik, enpleguarekin eta herriko ehun ekonomikoarekin, formakuntza alorrekin eta sozialarekin zerikusia duten gai asko lantzeraino heltzen da.

Zerrenda luzea da, benetan luzea, baina kapitulu honi amaiera emateko eta gaiaren inguruan sortu diren proposamenen aurrean, azken lerro hauek Musika Eskolarekin dugun konpromisoa berresteko erabiliko ditut, Musika Eskola geroko ikasleentzako deigarria eta ekonomikoko jasangarria izan dadin, etorkizunari begirako estrategiak denon artean azter ditzagun.

5. kapitulua. Kreditu globala eta beste zerga batzuk.

Kapitulu honek balio du Udalaren kudeaketari arintasuna emateko, premian egon daitezkeen beste partida batzuetarako transferentziak hemendik azkar bidera daitezkeelako.

Hasiera bateko zenbatekoa 60.000 eurokoa bada ere, zuzenketen atalari dagokion atalean ikusiko dugun bezala, partida hau modu nabarmenean gehitzea planteatzen dugu.



B. ERAGIKETA ARRUNTAK

6. kapitulua. Inbertsio errealak.

Sarritan aipatu dugun bezala, kapitulu honek 1,3 milioi eurotik gorako jaitsiera du, aurreko urteetan ez bezala, autonomia-aurrekontu esparru barruan Eusko Jaurlaritzatik ez delako diru-ekarpenik egingo aurtengo ekitaldian. Kuantitatiboki, bi partida garrantzitsuenak hauek dira: aurrenik, Errebalekoa, jardunaldi honetako gastu-aurreikuspena duena; eta, hurrenik, hiri-inguruetako eta irisgarritasuneko hobekuntzak, obra txikiak eta bestelako obra batzuk. Kapitulu horiek biak batuta inbertsioen % 75 inguru dugu.

Jardiñetarako igogailua; auzo horretako sarbideak hobetzea; plaza Barriaren koexistentzia; Aizarnan parking publiko bat egokitzea; Barrena 46-48ko plaza berriro urbanizatzea eta beste hainbat hiri-hobekuntza egitea.

Halaber, azpimarratzekoak dira baita Portalea hobetzeko obrak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jartzen duelako obra horiek egiteko ia % 60aren diru-laguntza.

Obrak ikastetxeetan; hobekuntzak landa inguruneetan; asfaltatze-lanak; inbertsioak herriko argiteriaren eraginkortasun energetikoa hobetzeko: hori guztia ere kapitulu honetan sartzen da.

7. kapitulua. Kapital transferentziak.

Kapitulu honek ukitzeke uzten du jabe erkidegoekin dugun konpromisoa fatxadak berriztatzeko eta igogailuak ipintzeko edo igogailu zaharrak kendu eta berriak ipintzeko eta pegoretako irisgarritasuna hobetzeko. Konpromiso horrek, joan zen urtetik, tratu onuragarriago bat ematen die argindarra aurreztu eta eraginkortasun energetikoko neurriak hartzen dituzten jarduketei.



8. kapitulua. Finantza-aktiboak.

Aurrekontuaren zenbateko osoan duen eragina benetan txikia da.

9. kapitulua. Finantza-pasiboak.

Kapitulu honek Udalak duen zorrari aurre egiteko zenbatekoa islatzen du. Zenbateko hori dokumentuan jasotako planteamendu teorikoaren arabera da, baina ordaintzeko benetako premia kreditu berri bat tramitatzeko premiaren arabera izango da, kreditu horren baldintzen arabera. Une honetan kontratatuta dauzkagun kredituetatik datozkigun ordainketak bakarrik dira finka ditzakegunak.

Memoriaren hasieran aipatu dudan bezala, oposizioko taldeek aurkeztutako zuzenketen inguruan izandako negoziazio-prozesuaren eta Udalbatzara daramagun proposamenari buruzko azterketa xume bat egin nahi dut, eta horrek guztiak aurrekontuan duen eraginaz hitz egin nahi dut, errealitate berri honi erantzun ahal izateko.

Aurrekontuaren zirriborroa aurkeztu eta horretarako emandako epea igaro ondoren, oposizioko alderdiek beren zuzenketa-proposamenak aurkeztu zituzten.

Zuzenketa horien abiapuntuak kezka handia sortu zuen gobernu-taldean, asko aldentzen baitzen hasierako zenbateko hartatik.

Hala da: gobernu-taldeak, 2016ko esperientzia ikusita eta eskura ditugun baliabideak nolakoak diren kontuan hartuta —aurrekontu-proposamenaren zenbatekoa 2016koa baino txikiagoa zela gogoratu behar da—, une hartan aipatutako diru-zenbatekoak hartu zituen erreferentziatzat, oposizioak egin zitzakeen zuzenketetarako nahiz akordiorako negoziazio-esparrurako.

Ez da horrelakorik gertatu alderantzizkoa baizik. Oposizioko alderdien abiapuntuak lau aldiz biderkatzen zuen aurreko ekitaldiarekin zenbatekoa; beraz, akordio batera iristeko tartea handitzen zihoan hura arriskuan jartzearaino.

Halaber, erantzukizunez eta borondatez, azterketa- eta negoziazio-lan bat egin da oposizioko talde guztiekin akordioetara iritsi ahal izateko, aukera bat bera ere bazterteke. Prozesu honetan aitortu beharra dago talde guztiek egin duten lana:



lortutako akordioak alde bien arrakastaren seinale dira; eta, akordiorik eza, porrotaren seinale.

Azken emaitza —hondo zuri gaineko letra beltzetan islatzea erraza ez bada ere—, gure aburuz, hauxe izan da:

- Eibarko EH-Bildurekin, gure iritzirako, negoziazioan izandako harremana ona izan da eta gauza asko eta askotan batera etorri gara; baina, hala ere, alde horrek dauden diferentziak gaindiezintzat jo dituenetz, aurrekontuen kontrako jarrerari eutsi dio.
- Eibarko EAJ-PNVrekin, hainbat lan-bilkura egin ostean, alde bakarreko eta aldi bereko erabakiz, talde jeltzaleak iragarri zuen aurrekontuetan abstenitu egingo zela. Talde sozialistari gutxienekoen agiri bat aurkeztu zion balizko akordioaz hitz egiten jarraitzeko. Laneko dokumentu edo agiri hori begi onez ikusi du gobernu-taldeak; itxoin egin beharko da hemendik aurrerako lanaren emaitzak jaso arte.
- Irabazi-Ganemos Eibar-ekin, martxoaren 10ean akordio-dokumentu bat izenpetu zen, landu beharreko hainbat ekimen eta proposamen ekonomiko bat zuen dokumentua. Diferentziak sortu direnez akordio hori Ogasun lan batzordera nola eraman behar zen esateko orduan, ez du onespenerik jaso.

Gauzak horrela, talde sozialistak proposamen hau aurkeztu du: 5. kapitulari, Gastuetakoa, 1.300.000 euroko partida bat gehitzea. Hain zuzen ere, zenbateko hori da, akordioetarako eta orientazio moduan, guk beti eman duguna, Irabazi-Ganemos Eibar-ekin hartutako konpromisoei aurre egiteko eta oposizioko talde guztiekin lanean jarraitu ahal izateko, negoziazio-prozesuan mintzagai eta hizpide izan diren proiektu asko aurrera eramateko. Eibarko EAJ-PNVrekin eta EH-Bildurekin akordiorik ez sinatu arren, jeltzaleen abstentzioak eta gutxieneko akordioak eta EH-Bilduk lanean jarraitzeko erakutsi duen jarrerak, Aurrekontuak onartu eta hurrengo egunetik aurrera, jarrerak hurbiltzen jarraitzen ahalegintzera bultzatzen gaituzte.

Proposamen horrek, hasiera batez behintzat, igaro du Ogasun lan batzordearen iragazkia.

Aldi berean, gogora ekarri behar da udal talde sozialistak 100.000 euroko zuzenketa bat aurkeztu duela Etxeko Laguntza zerbitzuko langileen lan-baldintzak



hobetzeko. Ekimen hori EH-Bildurekin landu zen eta, lehen batean, Ogasun lan batzordearen onespena jaso du.

Agertoki berri honen ondorioz, tramite guztiak gaindituz gero, behin betiko Aurrekontuak 33.139.021 euro izango ditu; eta igoera hori finantza-pasiboekin finantzatuko da.

Agintaldiaren erdiko puntura iritsi gara. Urte bi hauetan gauza asko egin dira, ez dago zalantzarik, baina, halere, oraindik asko geratzen da egiteko. Gutxiengoan gobernatzeak dauzkan zailtasunak, akaso, oztopo dira kudeaketa zalusunez egiteko orduan, baina erronka ere bada, zalantzarik gabe, ekimenak aurrera ateratzeko akordioak etengabe bilatu behar horrek dakargun erronka. Horixe da herritarrek gure Udalarentzako nahi izan duten agertokia eta gutako bakoitzak horrela ulertu beharko dugu; eta gauden tokian gaudela lan egin herritarrek guregan konfiantza izaten segi dezaten; berengandik gertuen dagoen administraziotzat har gaitzaten; oinarrizko zerbitzuetan ezer kentzeke; zailtasun handienak dauzkaten familiei laguntzen; inbertsioetan asmatzen, gure herritarrek eta bisitan datozenek erosoagoa senti daitezen; sare ekonomikoarekin, instituzionalarekin, publikoarekin eta pribatuarekin elkar lanean arituz, gure ekonomia bide onetik joan eta zabal eta haz dadin. Eta, hori guztia lortzeko, denok gara beharrezkoak.

Eibar dela gure lanaren ardatz; Eibar dugula helburu; benetan inporta zaiguna Eibar dela: horretan bat bagatoz, bidean elkartuko gara. Segur.